

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

2023-24 IKASTURTEKO KIMIKA MINTEGIA

1.- EBALUAZIO IRIZPIDE OROKORRAK

- Kimika Mintegiak ETHAZI lan-metodologiarekin lan egiten du, erronketan oinarritzen den lankidetzaz-metodologiarekin.
- Erronketan, gaitasun teknikoak eta zeharkako gaitasunak honen arabera ebaluatzen eta kalifikatzen dira:

Kalifikazioan kompetentzia-motek duten pisua	%
Kompetentzia teknikoak	70
Zeharkako kompetentziak	30

- Erronken arabera lan egiten badugu ere, erronkan bertan lortutako notak ez du baliorik (informatiboa da); izan ere, balio ofiziala duten kalifikazioak (buletinetan eta aktetan agertutako direnak) dagozkion moduluetan lortutakoak dira.
- Erronkak gainditzeko, ezinbestekoa izango da bai gaitasun teknikoak bai zeharkako gaitasunak 10etik 5 edo altuagoa den nota batekin gainditzea. Erronka bateko moduluren bat gainditzen ez bada, erronka suspendituta dagoela ulertuko da, eta erronka hori berreskuratu egin beharko da errekupeazio atalean adierazitakoaren arabera.
- Erronka batekin lortutako moduluren bat/batzuk gaindituta edota baliozkotuta dituen ikaslea derrigortuta egongo da erronkaren/proiektuaren garapenean parte hartzea baldin eta baliozkotu gabeko edota gainditu gabeko moduluak ere sartzen badira erronkan/proiektuan. Hala ere, gainditutako edota baliozkotutako moduluari dagokion erronkaren zatian, salbuetsita egongo da kalifikatua izatek. Bestalde, zentroak berariazko prozedurak ezarri ahal izango ditu egoera horretan dauden ikasleen taldeak antolatuzko.
- Erronka bakoitzaren ebaluazio-/kalifikazio-irizpideak erronkaren dokumentuan zehaztuko dira (irakaslearen bertsioa eta ikasleen bertsioa).
- Inplikaturako erronka eta modulu bakoitzean, ikasleek ikasgaia aprobatzeko, gainditu behar dituzten zeregin kritikoak zehaztuko dira. Arau orokor gisa, zeregin eta jarduera horiek gainditzeko, gutxienez nota 10etik 5 izango da.
- Kalifikatzeko zereginak egiten diren saioetara ez joateak **penalizazioak** eragin ditzake gaitasun teknikoak edota zeharkakoak kalifikatzean. Ikasleei jarduera bakoitzaren hasieran emango zaie penalizazio honen berri.
- Ikastaroa etengabeko ebaluazioaren bidez gainditzeko aukera izateko, ezinbestekoa da erronka guztiak gaindituta izatea.
- Bertaratzeari dagokionez, modulu bakoitzean % 20ko hutsegitea gainditzen duten ikasleek etengabeko ebaluaziorako eskubidea galduko dute, eta proba finalak (lehena eta bigarrena) egin beharko dituzte. Klase presentzialetan bertaratzeari kontuan izateko, **puntuala, osoa eta aktiboa** izan beharko da. Saio telematikoetan, berriz, **puntuala, osoa, aktiboa** izan beharko da, **eta kamera eta mikrofonoak irekita** eduki.

1.1.- Gaitasun teknikoaren ebaluazioa

Gaitasun teknikoak bai jarduera amankomunetan (erronkako atazak) bai erronkan parte hartzen duten modulu espezifikoetan ebaluatuko dira.

- Gaitasun tekniko komunen ebaluazioa (erronkaren emaitza)
 - "Emaitzak edota ebidentzia teknikoak" atalean bilduko dira erronkaren zereginak behar bezala egin direla zehazten duten datuak.
 - Erronkan parte hartzen duten modulu-tako irakasle guztiek egingo dute % 100ean prozesua.
- Modulu bakoitzaren gaitasun teknikoaren berriazko ebaluazioa
 - "Emaitzak edota modulu bakoitzeko jarduera espezifikoaren ebidentzia teknikoak" atalean bilduko dira datuak.
 - Modulu bakoitzeko irakasleak egingo du %100ean prozesua.

1.2.- Zeharkako gaitasunaren ebaluazioa

Zeharkako gaitasunak bai jarduera amankomunetan (erronkako atazak) bai erronkan parte hartzen duten modulu espezifikoetan ebaluatuko dira.

- Zeharkako gaitasunaren ebaluazioan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek hartuko dute parte: ikasleek eta irakasleek. Zehazki, hauen bidez gauzatuko da:
 - autoebaluazioa
 - koebaluazioa
 - heteroebaluazioa

Ikasturte honetan, erronka guztietan, gutxienez, zentroak zehaztutako bi zeharkako gaitasun ebaluatuko dira; horietako bat **inplikazioa** izango da.

1.3.- Taldean ikasturtea hasita sartzen diren ikaslearen ebaluazioa (ikasturteko hasierako erronka/k).

- Ikasturtea hasita ikastetxera heltzen diren ikasleek ordura arte egindako erronkako edo erronketako jarduerak (atazak, praktikak, lanak...) egin beharko dituzte irakasle-taldeak beharrezkotzat jotzen dituenak gainerako ikasleekin batera erronkaren ebaluazio egokia eta ahalik eta homogeneoena egiteko.
- Banaka ezarritako zereginetan, talde-lanerako aplikagarriak diren zeharkako konpetentzien autoebaluazioa eta koebaluazioa ez da egingo.
- Proposatutako lanen arabera ebaluatu eta kalifikatu daitezkeen zeharkako konpetentziei talde-laneko autoebaluazioaren eta koebaluazioaren notaren ehunekoa gehituko zaio.

2.- KALIFIKAZIO IRIZPIDE OROKORRAK

Erronkaren kalifikazioa dokumentuaren hasierako koadroan azaldutakoaren arabera egingo da:

Konpetentzia teknikoak: notaren % 70

Zeharkako konpetentziak: azken notaren % 30

Konpetentzia teknikoak kalifikatzeko irizpideak erronka bakoitzaren dokumentuetan zehaztuko dira, eta proposatutako lanen arabera kalifikazioa kalkulatzeko aplikatuko den ehuneko zehaztuko da.

Zeharkako konpetentzien kalifikazioa honako era honetan egingo da:

- a) Inplikazioa (zeharkako gaitasunen % 30, erronkaren notaren % 9)
- b) Erronka bakoitzean, gutxienez, konpetentzia bat gehituko da (zeharkako konpetentzien % 70, erronkaren notaren % 21). Erronka bakoitzean, zeharkako konpetentzia bakoitzari esleitutako kalifikazioaren ehuneko zehaztuko da.

Zeharkako konpetentzia guztietan, notaren % 50 irakasle-taldeak emandako kalifikaziotik aterako da (heteroebaluazioa); eta gainerako % 50a, autoebaluaziotik eta koebaluaziotik.

Bi kalifikazioen arteko aldea puntu batetik gorakoa denean, aplikatuko den kalifikazioa irakasle-taldearena izango da.

2.3.- Erronkak modulu bakoitzaren azken kalifikazioa zer balio izango duen

Moduluaren azken kalifikazioaren kalkulua. Moduluaren amaierako nota erronka guztien azken notaren ehunekoaren arabera kalkulatu da. Erronka bakoitzaren bukaerako notaren ehuneko ordu kopuruaren arabera izango da. Informazio hori erronkaren dokumentuan islatuko da.

Biribiltzeko irizpideak. Buletinean, nota hamartarrik gabeko zenbaki osoa izango da. Matematikoki biribilduko da.

Nota hobetzea. Irakasleek, egoki iritziz gero, lehen ebaluazio finalaren nota hobetzeko zuzenketa bat aplikatzea erabaki dezakete. Zuzenketa hori, aplikatzen bada, behar bezala justifikatu beharko da irakaslearen koadernoan.

3.- BERRESKURATZEKO PROZEDURA

Programazioaren garapenak ahalbidetzen badu, errekupeazio-ariketak edo -probak egingo dira erronka bakoitzaren kalifikazio-jardueretarako. Oro har, errekupeazio-probetan ez da nota hobetzeko aukerarik emango. Irakasle bakoitzaren erabakia izango da arau honetan salbuespenak egitea.

Errekupeazio-probetan edo -ariketetan lortutako kalifikazioa zuzenean aplikatuko da erronkaren azken nota kalkulatzeko aurretik egindako probaren ehuneko berean.

Lehen Finala. Etengabeko ebaluazioaren bidez erronka bat edo gehiago gaintu ez duten ikasleek amaierako azterketa egin ahal izango dute gaintu gabe dituzten edukiak berreskuratzeke.

Bigarren Finala. Bigarren finalean, gaintu gabeko moduluaren eduki guztien azterketa egingo da. Irakasleak erabaki dezake, arau honi salbuespena egitea.

3.1.- Gaitasun teknikoak berreskuratzea: notaren % 70.

- a) Modulu guztietarako amankomunak diren jarduerak: zeregin hauek berreskuratzeke, erronkan eskatzen den antzeko ezaugarriak dituen lan bat aurkeztu beharko da. Irakasleak erabaki dezake erronkako zenbait zeregin ezin direla berreskuratu erronkan egin diren moduan.
- b) Modulu bakoitzerako berariazko zereginak: irakasle bakoitzak bere moduluan egingo dituen berreskuratze-jarduerak ezarri ahalko ditu.

3.2.- Zeharkako kompetentzien berreskuratzea: notaren % 30.

Zeharkako kompetentziak etengabeko ebaluazio prozesu jarraitua dute.

Erronkaren amaieran zeharkako kompetentziak gainditzea lortu ez duten ikasleentzat, kompetentzia horiez hausnartzeko eta haietan sakontzeko jarduera batzuk proposa daitezke.